De conformidad con lo dispuesto en el artículo 122.2 letra e) LCSP, los licitadores tienen la obligación de indicar en su oferta, si tienen previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización. Esta obligación se califica de esencial a los efectos de lo previsto en la letra f) del apartado 1 del artículo 211 LCSP.

27.- Cesión del contrato. (Cláusula 44)

Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato no podrán ser cedidos por el contratista a un tercero, ya que la cesión no es posible de acuerdo con lo establecido en el segundo párrafo del artículo 214.1 LCSP, ya que las cualidades técnicas o personales del cedente han sido razón determinante de la adjudicación del contrato.

28.- Modificaciones previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares (Cláusula 51)

No procede.

29.- Suspensión. (Cláusula 52)

Abono al contratista de los daños y perjuicios por suspensión del contrato: de conformidad con lo dispuesto en el artículo 208 LCSP.



30.- Penalidades. (Cláusulas 12, 39, 43, 45, 47 y 53)

a) Por demora: de conformidad con lo establecido en el artículo 193 de la LCSP, cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, se impondrá una penalidad diaria en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

b) Por incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso:

b.1) Por cumplimiento defectuoso: de conformidad con lo establecido en el artículo 192 de la LCSP, cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, se le impondrá una penalidad del 2 por cien del precio del contrato, IVA excluido en el caso de que el defecto sea subsanable; en el caso de que el defecto no sea subsanable, se le impondrá una penalidad del 5 por cien del precio del contrato, IVA excluido.

b.2) Por incumplimiento de los compromisos de adscripción de medios personales o materiales: No procede, dado que tiene atribuida la consideración de obligación contractual esencial y el incumplimiento de ésta será causa de resolución.

b.3) Por incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución: No procede, dado que tienen atribuido el carácter de obligación contractual esencial.

c) Por incumplimiento de los criterios de adjudicación: No procede, dado que tienen atribuida la consideración de obligación contractual esencial y el incumplimiento de éstos será causa de resolución.

d) Por incumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral: No procede, dado que tienen atribuido el carácter de obligación contractual esencial y su incumplimiento supone la resolución del contrato.

e) Por incumplimiento de las obligaciones relativas a la subrogación: Se estará a lo dispuesto en el Convenio Colectivo que sea aplicable y su incumplimiento supone la resolución del contrato.

f) Por incumplimiento de las condiciones de subcontratación (artículo 215.3 LCSP): Procede la imposición de una penalidad de un 40 por cien del importe del subcontrato.

g) Por incumplimiento de las obligaciones previstas en el artículo 130 de la LCSP, relativas a las condiciones de subrogación en contratos de trabajo: Procede la imposición de una penalidad de un 5 por cien del precio del contrato, IVA excluido.

h) Por incumplimiento de la condición especial de ejecución del artículo 202.1 LCSP, relativa a la cesión de datos por las entidades del sector público al contratista: No procede, dado que tienen atribuido el carácter de obligación contractual esencial y su incumplimiento supone la resolución del contrato.

31.- Causas de resolución del contrato. (Cláusula 61)

Además de las dispuestas en el artículo 211 LCSP, serán causa de resolución del contrato el incumplimiento de las condiciones que tienen atribuido el carácter obligación contractual esencial.

32.- Plazo de garantía. (Cláusula 23 y 58)

Un año y si se cumple lo dispuesto en el artículo 111.5 de la LCSP, seis meses.

33.- Deber de confidencialidad. (Cláusula 40)

Duración: 5 años desde el conocimiento de esa información.

34.- Plazo de solicitud de información adicional sobre los pliegos. (Cláusula 19)

Los interesados en el procedimiento de licitación deberán solicitar información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria con una antelación de cinco días antes de la finalización del plazo de presentación de las proposiciones.

35.- Perfil de contratante. (Cláusulas 19 y 30)

La dirección de acceso al perfil de contratante en el Ayuntamiento de Tolosa es <https://udala.tolosa.eus/es/administraci%C3%B3n-municipal/contrataci%C3%B3n>



TOLOSAKO
UDALA

ZERBITZUAK / SERVICIOS

irekia / abierto

I. ERANSKINA

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

IZENBURUA: Tolosako udaleko trafikoko eta TAO arau-hausteengatiko zehapen-espediten kudeaketa integralaren arloan eta zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen betearazpen-aldiko bilketaren arloko laguntza tekniko-juridikoko eta kudeaketako zerbitzuak emateko kontratua, prozedura irekiaren bidez esleitu beharrekoa.

1.- Kontratuaren xedea zehaztea: (5. eta 39. klausulak)

CPV kodea/k:	75000000-6 Servicios de administración pública, defensa y servicios de seguridad social 75100000-7 Servicios de administración pública
Lotetan banatzea:	EZ

Kontratuaren xedea da laguntza tekniko-juridikoko zerbitzua ematea zergak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk betearazpen-aldian biltzea, trafikoko zehapenak izan ezik, eta gainera, trafiko eta TAO zehapenen kudeaketa integrala, trafiko-zehapenak izapidetzeko zerbitzua eta, ondoren, borondatezko epean eta betearazpen-aldian biltzea barne hartzen duena.

Kontratuan, beharrezkotzat jotzen diren laguntza tekniko-juridikoko, laguntzako eta gauzatze praktikoko zeregin guztiak egingo dira, bai administrazio-prozedura izapidetzean, bai betearazpen-aldian zorrak berreskuratzeko gaitasuna indartzeko aplikazio teknikoetan.

Kontratuaren xedetik kanpo geratzen dira agintaritzak erabiltzea dakarten egintzak.

Kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduerak eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak, zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikoetik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek loteetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, gardentasun eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziatio kolektibo batek ezarritako subrogatzeko betebeharrak (SPKLaren 130. artikulua): Aplikagarria den lan-hitzarmenean xedatutakoa izango da kontuan. Enpresak Convenio colectivo de ámbito estatal para despachos de técnicos tributarios y asesores fiscales (9912405011999 kodea) izeneko lan-hitzarmena aplikatzen du (2013ko aurriaren 13ko EAOn argitaratua). Halaber, Gesmunpal, .S.A enpresaren hitzarmen kolektiboa (48100141012012 kodea) aplikatzen du.

Plegu honetako **VIII. eranskinean** subrogazioak eragindako langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa jasotzen da, lan-kostuen ebaluazio zehatza egin ahal izateko. Informazio hau SPKL Legearen 130. artikuluan aurreikusitakoa betez helarazten da.

Kontratu erreserbatua SPKLren 4. Xedapen Osagarriaren arabera: Ez.

Obra/horniduretako kontratu osagarria: Ez.

Datuak lagatzea eta tratatzea

- Sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea eskatzen duen kontratua.
- Kontratistak datu pertsonalak tratatzea eskatzen duen kontratua, tratamenduaren arduradunaren kontura. SPKLren 122.2 artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera, datu pertsonalak lagatzeko helburua honako hau da: Zergak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk betearazpen-aldian biltzea, trafiko-zehapenak izan ezik, bai eta trafiko-zehapenen eta TAO zehapenen kudeaketa integralean ere, eta ondoren borondatezko epean eta betearazpen-aldian biltzea.
- Halaber, SPKLren 122.2 artikuluko b) eta d) letran xedatutakoaren arabera, honako betebeharrak hauek jasotzen dira:
 - Kontratista izango denak datuak babesteari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoak bete beharko ditu, SPKLren 202. artikuluko 1. zenbakiaren azken lerroetan ezarritakoari kalterik



egin gabe.

- SPKLren 122. artikularen 2. zenbakiaren c) letran aipatzen den adierazpenean ematen den informazioan kontratuaren bizitzan gertatzen den edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra.
SPKLren 122. artikularen 2. zenbakiaren a), b) eta d) letratan jasotako betebeharrak horiek funtsezkotzat jotzen dira SPKLren 211. artikularen 1. zenbakiaren f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako.

2.- Administrazio-organismoak. (2., 34. eta 36. klausulak)

Kontratazio-organismoak: Alkate-Lehendakaria.

Unitate izapide-egilea: Ogasun eta Finantza Administrazio Saila.

Posta helbidea: Plaza Zaharra 6, 20400 Tolosa, Guipúzcoa.

Kontratazio mahaiaren konposizioa

Lehendakaria	Alkate-lehendakaria, Olatz Peon Ormazabal. <i>Ordezkoa: Alkateordea, Patxi Amantegi Zubiria.</i>
1. Bokala	Alkateordea, Xabier Balerdi Tolosa. <i>Ordezkoa: Alkateordea, Nerea Letamendia Belloso.</i>
2. Bokala	Udal idazkaria, Begonia Garmendia Vazquez, edo haren ordezkoa.
3. Bokala	Udal kontu-hartzailea, Paulino Alonso Eraso, edo haren ordezkoa.
4. Bokala	Kontratazio teknikaria, Francisco Javier Araniguriá Rodrigo, edo haren ordezkoa.
5. Bokala	Errenta teknikaria, Idoia Yarza Amantegui, edo haren ordezkoa.
Idazkaria	Kontratazio administratiboa: Gemma Urbina Vinuesa, edo haren ordezkoa. (botorik gabe)

3.- Kontratuaren jarraipen eta egikaritzeaz arduratzen den unitatea. (4. klausula)

Ogasun eta Administrazio Finantza Saila.

Kontratuaren arduraduna: Paulino Alonso Eraso, udal kontu-hartzailea.

4.- Balio zenbatetsia. (6. eta 19. klausulak)

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)	252.053,04 €
Luzapenak (BEZik gabe)	252.053,04 €
Guztira, balio zenbatetsia	504.106,08 €

	meses	valor estimado	cuota a pagar (IVA incluido)
2020	2	21.004,42	25.415,35
2021	12	126.026,52	152.492,09
2022	8	84.017,68	101.661,39
	4	42.008,84	50.830,70
2023	8	84.017,68	101.661,39
	4	42.008,84	50.830,70
2024	10	105.022,10	127.076,74
TOTAL	48	504.106,08	609.968,36

Aurreikusita dago kontratua 2020ko azaroaren 1ean hasia
Se estima que el contrato dé comienzo el 1 de noviembre de 2020

Balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatutako metodoa:

SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldadak eta ordainsariak.

			PPTO. BASE LICITACION	VALOR ESTIMADO		
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	4 años sin IVA	4 años con IVA	
126.026,52	152.492,09	252.053,04	304.984,18	504.106,08	609.968,36	

5.- Lizitazioaren oinarri-aurrekontua eta hura asetzeko kreditua. (7., 8. eta 51. klausulak)

Kontratu honen lizitazio-aurrekontua kalkulatzeko, kontuan hartu da udalak ordainduko duen benetako diru-bilketaren (BEZ kanpo) printzipalaren gaineko gehieneko ehunekoa (% 18 eta % 42), aurreikusitako zenbateko baten arabera. Datu horiek, jarraian txertatutako koadroetan azaltzen dira:



TOLOSAKO
UDALA

ZERBITZUAK / SERVICIOS

irekia / abierto

 TOLOSAKO UDALA					
ESTUDIO ECONOMICO DEL SERVICIO DE RECAUDACION					
<u>1.-Valor del contrato en base a promedio de cobros del período 2015-2018</u>					
	1º año	2º año	3º año	4º año	
Ejecutiva	36.399,78	36.399,78	36.399,78	36.399,78	
Ejecutiva multas	43.010,52	43.010,52	43.010,52	43.010,52	
Voluntaria multas	46.616,22	46.616,22	46.616,22	46.616,22	
Valor estimado	126.026,52	126.026,52	126.026,52	126.026,52	504.106,08
<u>2.-Coste del servicio</u>					
	1º año	2º año	3º año	4º año	Promedio
<u>Gastos directos</u>					
A.-Personal					
Responsable Licenciada Derecho	18.480,00	18.757,20	19.038,56	19.324,14	18.899,97
Gestora recaudación ejecutiva	20.697,60	21.008,06	21.323,18	21.643,03	21.167,97
Gestora sanciones de tráfico	17.952,00	18.221,28	18.494,60	18.772,02	18.359,97
Administrativas de apoyo	21.780,00	22.106,70	22.438,30	22.774,88	22.274,97
Total personal (A)	78.909,60	80.093,24	81.294,64	82.514,06	80.702,89
B.- Otros gastos					
Ordenadores y otros equipos	2.500,00	2.500,00	2.500,00	2.500,00	2.500,00
Local	4.200,00	4.200,00	4.200,00	4.200,00	4.200,00
Papelería, toners	2.500,00	2.500,00	2.500,00	2.500,00	2.500,00
Tributos	700,00	700,00	700,00	700,00	700,00
Gastos financieros	900,00	900,00	900,00	900,00	900,00
Otros	12.000,00	12.000,00	12.000,00	12.000,00	12.000,00
Total otros gastos (B)	22.800,00	22.800,00	22.800,00	22.800,00	22.800,00
Total gastos directos	101.709,60	102.893,24	104.094,64	105.314,06	103.502,89
Gastos generales (13%)	13.222,25	13.376,12	13.532,30	13.690,83	13.455,38
Beneficio industrial (6%)	6.102,58	6.173,59	6.245,68	6.318,84	6.210,17
Total Gasto sin IVA	121.034,42	122.442,96	123.872,62	125.323,73	123.168,44
IVA	25.417,23	25.713,02	26.013,25	26.317,98	25.865,37
Total gastos	146.451,65	148.155,98	149.885,88	151.641,72	149.033,81
Tolosa, 7 de julio de 2020					

Jarraian erantsi den taulan, kontratuaren xede diren bi zerbitzuak banakatzen dira, bai eta **Udalak gehieneko ehuneko gisa ordainduko duen eta lizitatzailerik beherantz hobetu ahal izango duten benetako diru-bilketaren ehuneko nagusia ere (BEZa kanpo)**. Ezarritako ehunekoak gairatzen dituzten eskaintzak ez dira baliozkoak izango; kasu horretan, enpresak lizitaziotik kanpo geratuko dira automatikoki.

zerbitzua	Gehieneko ehunekoa
Zergak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk betearazpen-aldian biltzea,	% 18,00



TOLOSAKO
UDALA

trafikoko zehapenak izan ezik	
Trafiko-zehapenen kudeaketa integrala, trafiko-zehapenak izapidetzeko zerbitzua eta, ondoren, borondatezko epean eta betearazpen-aldian biltzea barne hartzen duena.	% 42,00

Enbargoak egitearen kostuak eta gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, errekaruen, berandutze interesen eta gainontzeko kontzeptuen ondoriozko diru sarrerak, bere osotasunean, berriz, Udalarentzat izango dira.

Ondorio guztietarako, ulertuko da eskaintzetan sartzen direla enpresak kontratatutako prestazioak betetzeko egin behar dituen gastu guztiak, trafiko-zehapenak kudeatzeko posta-zerbitzuaren gastuak izan ezik.

Baterako finantzaketa: EZ Tolosako Udalak: % 100 Beste erakunde batzuek: % 0

Aurrekontua zehazteko sistema: aurrekontuaren banakatzea unitate-prezioka egin da, puntu honetan eranstend den taulako datuen arabera.

Unitate kopurua kontratuaren prezioaren % 10eraino gehitzeko aukera: Ez.

6.- Prezioak berrikustea (13. klausula).

Ba al dagokio: Ez, SPKLren 103. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Ordainketen araubidea (36. klausula).

Hilero ziurtagiriak igorriko dira, azken likidazioaren konturako ordainketa gisa.

8.- Egikaritze-epea eta -lekua. (9., 10. eta 53. klausulak)

Bi urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2020ko azaroaren 1etik 2022ko urriaren 31ra arte. Era berean, urtez urte, beste bi urteko luzapena ezartzeko aukera aurreikusten da.

9.- Lan-programa. (47. klausula)

Eman beharreko zerbitzuen lan eta antolaketa-programa eta balio-judizioen mende dauden gainerako alderdiak, memoria teknikoaren zati dira. Memoria hori **B gutun-azalean sartu beharko da**, eta, aurrerago esango dugunez, 19.1 puntuan xedatutakoaren arabera baloratu ahal izango da.

10. Adjudikazio-prozedura eta -irizpideak. (18. eta 20. klausulak)

Izapidetze aurreratua: Ez.

Prozedura: Irekia.

Arau armonizatupeko kontratua: Bai.

Kontratazio errekurtsore bereziaren menpe: Bai.

Adjudikazio-irizpideak: Irizpide ugari hartzen dira kontuan.

11.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa. (14., 15., 16. eta 34. klausulak)

Enpresaburuek kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak dituztela egiaztatu beharko dute, SPKLren 86.etik 91.era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Kasu honetan, sailkapena ezin da eskatu, zerbitzu-kontratua delako, eta ez dago baliokidetasunik urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren II. eranskinean, Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenean. Administrazioak.

Beraz, kaudimena bitarteko hauen bidez egiaztatuko da:

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea:

SPKLren 87.1 artikulua a) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresariak, EKAB agiriaren dagokion atala betetz (A gutun-azalean sartu behar da), **enpresaren urteko negozio-bolumena** egiaztatu



TOLOSAKO
UDALA

beharko du, ekitaldi onenari dagokionez, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik, **gutxienez hirurehun mila (300.000,00) eurokoa**.

Kaudimen hori justifikatzeko, Merkataritza Erregistroan behar bezala gordailututako urteko kontuak aurkeztu beharko dira, dagokion gordailu-frogagiriarekin batera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiei dagokionez, eta a gutun-azalean sartu beharko da.

- Kaudimen teknikoa egiaztatzea:

SPKLren 90.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kaudimen teknikoa egiaztatzeko, enpresariak kontratuaren xedea osatzen duten **zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko du (ez bertako langileena)**, betiere EKAB agirian dagokion atala betez (A gutun-azalean sartu behar da). Zerrenda hori, gehienez ere, azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien antzekoa izango da. Urte horietan, honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua.

SPKLren 90.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, lan edo zerbitzu bat kontratuaren xedearen izaera bera edo antzekoa dela zehazteko, CPV kodeak hartuko dira kontuan.

Beraz, azaldutako guztiagatik, kaudimen tekniko hori egiaztatzeko, **gutxienez zerbitzu edo lan bat** egin dela egiaztatu beharko da, izaera berekoak edo antzekoak, eta **gutxienez 80.000 euroko** urteko zenbatekoan (BEZa barne).

12.- Kaudimenaren baldintzak zehaztea. (17. eta 28. klausulak)

12.1.- Baliabide materialak

Lokala

Herritarrei beren premietara egokitutako zerbitzu integrala eskaintzeko, udaletxearen inguruan baldintza egokiak betetzen dituen lokalik ez dagoenez eta herritarrei arreta emateko bulegoan (UDATE) instalazio berriak herritarren eskura jarri direnez, eta zergadunei era guztietako informazio-erraztasunak bermatze aldera, komenigarritzat jotzen da eman beharreko zerbitzua udaletxeko instalazioetan bertan kokatzea. Era berean, herritarrentzako informazio-bulego guztien kokapen bakarra bermatzen da, bai eta herritarrentzako arreta-bulegora – UDATEra – berehala sartzeko aukera ere, non herritarrek beren kabuz edo gaitutako udal-funtzionarioen laguntzarekin behar dituzten dokumentu, ziurtagiri eta informazio guztiak eskura ditzaketen. Eskakizun hori, gainera, IZFE foru-enpresaren aplikazio informatikoetarako sarbidea izan behar izatetik dator. Aplikazio horiek ez ditu soilik Tolosako Udalak erabiltzen, Gipuzkoako probintziako udalerri gehienek baizik, eta aplikazio horien bidez sartzen da borondatezko aldiko trafiko-zehapenak kudeatzeko programan. **Lokal hori kontratu honen berezko jarduerak egiteko baino ez da erabiliko, eta ezin izango da bertan beste hirugarren batzuekin lotutako jarduerarik egin.**

Aurrekoa kontuan hartuz, zerbitzuaren kokapena enpresa esleipendunarentzat bakarrik diren bulegoetan kokatuko da, udal-zerbitzuetatik bereizita, eta guztiz bereizita identifikatuko da bai karteletan, bai udaletxeko adierazleetan.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta ondasun higigarri eta higiezinaren segurtasuna eta osotasuna bermatze aldera, zerbitzua **presentzialki eman beharko da** eta horren ordutegia, inoiz ez bertara atxiki daitezkeen langileena, bateragarria izango da udaletxeko jendaurreko ordutegiarekin, hau da, 7:15etatik 14:15etara, astelehenetik ostiralera. Ordutegi horretatik kanpo udaletxea itxita dago.

Enpresa esleipendunak dagokion telefono-linea instalatu beharko du bere kargura, udal-langileek erabiltzen dituzten udaletxean dauden gainerako telefono-lineetatik independentea izango dena. Era berean, haren kontura izango dira kontratua garatzeko beharrezkoak diren instalazioa eta posta elektronikoko, elektrizitateko, faxeko, fotokopiagailuko eta behar diren besteen gastuak.

Hardwarea

Ezarritako jarduerak egiteko beharrezkoak diren ekipo informatikoak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, eta hark instalatuko ditu, bere kontura, uzten zaizkion udal-bulegoetan.



Softwarea

Enpresa esleipendunak bere softwarea izan beharko du betearazpen-aldian diru-bilketako zerbitzua emateko.

Esleipendunak betearazpen-aldian diru-bilketaren zerbitzua emateko erabiltzen duen programa informatikoak aukera eman beharko du bertan jasotako datuak udalaren diru-bilketaren datu-basera eramateko.

Borondatezko epean trafikoko zigorren kudeaketa Udalaren softwarearen (IZFE) bidez egin beharko da.

12.2.- Giza baliabideak

SPKLren 76.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailerik kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko ardura duten pertsonen izena eta lanbide-kualifikazioa adierazi beharko dituzte beren eskaintzan. Horretarako, EKAB agirian dagokion atala bete beharko dute, a gutun-azalean sartu beharko dena.

Enpresa esleipendunak kontratu hau gauzatzeko behar diren langileak jarriko ditu, aplikatzekoa den lan-araudiaren arabera, eta Gizarte Segurantzari eta bertako langileei egin beharreko ordainketak egunean izan beharko ditu. Udalak edozein unetan eskatu ahal izango die hori egiaztatzeko, kontratua gauzatzen den bitartean.

Enpresa esleipenduneko langileek ez dute eskubiderik sortuko Udalaren aurrean, eta ez dute inolako lan-harremanik izango harekin eta Udaletik kanpoko enpresako langile gisa argi eta garbi identifikatuta egon beharko du. Kontratua azkentzeko unean, ez da egongo Langileen Estatutuko aginduetan aurreikusitako subrogaziorik. Alde horretatik, esleipendunak zerbitzu hau emateko atxikitzen dituen langileek haren lan-mendekotasuna izango dute, eta, inolako arrazoiengatik, kaleratzearena barne, langile horiek ezin izango dira Udalaren mende egon, eta hark ez du inola ere esku hartuko esleipendunaren eta haren langileen artean dauden lan-harremanetan. Hori dela eta, lanaren antolaketa eta kontrola esleipendunaren kontura bakarrik izango dira, eta Udalak ezin izango die inola ere zuzeneko jarraibiderik eman esleipenduneko langileei. Jarraibide, gomendio edo gidalerro horiek enpresak izendatutako solaskideari baino ez zaizkio emango.

Esleipendunak lan-kontratazioaren, laneko segurtasunaren eta higienearen arloko legezko eta erregelamenduzko xedapenak bete beharko ditu, eta horiek ez betetzeak ez du esan nahi Udal Administrazioak zerbitzua emateko kontratatutako langileen aurrean erantzukizunik duenik.

Esleipendunak bere kargura dituen langileen berezko baliabideak eman beharko dizkio zerbitzuari, kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak, diru-bilketa exekutiboari eta trafiko-zehapenei buruzko ezagutzak dituztenak. **Zerbitzua, modu presentzialean eman beharko da.**

Zerbitzua emateko gutxieneko giza baliabideak honako hauek izango dira:

- Arduraduna/solaskidea, zuzenbideko lizentziaduna edo graduduna eta diru-bilketako prozeduraren esperientzia duena, eta astean 16 orduko gutxieneko dedikazioa.
- Nahitaezko diru-bilketaren kudeatzailea, astean gutxienez 28 orduko dedikazioarekin.
- Trafiko-zehapenen kudeatzailea, astean gutxienez 35 orduko dedikazioarekin.
- Administrazio laguntzailea, astean gutxienez 35 orduko dedikazioarekin.

Esleipendunak enpresako arduradun bat izendatuko du kontratua gauzatzean, nahitaezko diru-bilketari eta trafiko-zehapenei buruzko esperientziarekin, eta hura izango da Udalaren solaskidea planteatzen diren alderdi eta gorabehera guztietan. Kontratua uneoro lokalizatuta egon beharko da, eta Udalarekiko harremanak zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, kontratutik eratorritako betebeharrak zorrotz betetzen direla zainduz, eta zerbitzuaren udal-arduradunaren jarraibideak jaso ohi ditu. Berari dagokio ziurtatzea kontratatutako zerbitzu guztiak ahalik eta baldintza onenetan eta pleguen eta proiektuaren arabera egiten direla, betiere zerbitzu horien prestazioan kalitaterik handiena bermatuz.

Zergei eta diru-bilketari buruzko ezagutza teoriko praktikoaren baldintzak bete beharko ditu, eta esperientzia eta gaitasun nahikoa izan beharko du honako hauetarako:



1.- Enpresa esleipenduna ordezkatzeari, haren jarduna edo presentzia beharrezkoa denean, baldintza-agiri honen arabera, bai eta kontratu-betebeharrak betetzetik eratorritako beste egintza batzuetan ere, betiere zerbitzua gauzatzeari eta behar bezala jarduteari begira.

2.- zerbitzuaren gauzatzea eta Udaletik jasotako aginduak betetzea antolatzea.

SPKLren 76.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta zerbitzuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, **zuzenbideko lizentziaturako edo graduako unibertsitate-prestakuntza izan beharko du, bai eta diru-bilketako prozeduran hiru urteko esperientzia ere**. Prestakuntza hori dagokion titulu ofizialaren bidez egiaztatuko da, Zuzenbideko lizentziaturaren edo graduaren kasuan, eta bilketa-prozeduran esperientzia egiaztatzen dituzten titulu ofizialak edo lan-ziurtagiriak aurkeztuta. Esperientzia egiaztatzen bada, gutxienez hiru urtekoa izan beharko da. Hori guztia A gutun-azalean sartu beharko da.

Era berean, arduradun horrek euskarako EGA maila edo baliokidea izatea eskatzen denez, dagokion titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko du euskara-maila hori. Hori A gutun-azalean sartu beharko da.

Udalak esleipendun enpresari arduradun berri bat izendatzeko eskatu ahal izango dio kontratatutako zerbitzuen martxak hala justifikatzen duenean.

Aurrerago esango den bezala, lau pertsona horiek (arduraduna/solaskidea, nahitaezko diru-bilketaren kudeatzailea, trafiko-zehapenen kudeatzailea eta administrari laguntzailea) egin beharreko eginkizunak eta zereginak ezin izango dira azpikontratatu, zerbitzuaren konplexutasuna dela-eta gaitasun berezia eskatzen baitaio.

13.- Enpresa-gaikuntza. (14. eta 34. klausulak)

Enpresa-gaikuntza egiaztatzeko, enpresaren objektu soziala izango da kontutan eta hau kontratuaren xedearekin bat datorren egiaztatuko da.

14.- Behin-behineko bermea. (21. klausula)

Ez dagokio.

15.- Behin betiko bermea. (22. klausula)

Esleipen zenbatekoaren % 5a, BEZa kanpo.

Prezioan atxikipena aplikatzearen bidezko eraketa: Ez dagokio.

16.- Berme osagarria. (SPKLren 107.2. artikulua) (22. klausula)

Ez dagokio.

17.- Aseguru-polizak. (34. eta 42. klausulak)

Erantzukizun zibileko asegurua, kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonari eta instalazioei eragindako kalte-galerengatik sor daitezkeen erantzukizunak bermatuko dituena, **seiehun mila euroko (600.000 €)** gutxieneko zenbatekoarekin. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, luzapenak eta bermealdia barne. Tolosako Udala aseguraturat hartuko da hirugarren baten izaera galdu gabe. Aseguru horietan frankiziak edo kanpoan utzitako arriskuak ezartzen badira, enpresa esleipendunak ordainduko ditu horiei dagozkien kalte-ordainak.

Polizak entregatzeko unea: kontratua formalizatu aurretik; beraz, ez da beharrezkoa izango polizak gutun-azalean sartzea.

18.- Proposamenak egiteko modua: (26. klausula)

Proposamenak **bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko, HIRU GUTUN-AZAL EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN**. Eskaintzak **Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman** dagoen lizitazio elektronikoko sistema izeneko aplikazioaren bidez aurkeztuko dira (www.contratacion.euskadi.eus).



A GUTUN-AZALA

1.- KONTRATAZIORAKO AGIRI EUROPAR BAKARRA (EKAB)

"Aurretiazko baldintzak betetzek direla ziurtatzen duen dokumentua" jasoko du; horretarako, **Kontrataziorako Agiri Europar Bakarreko (EKAB) eredia jarraitu beharko da** eta bertan agiriko galdera guztiei erantzun beharko zaie eta zehazki eskatutako kaudimen ekonomiko-finantzario eta teknikoko irizpideei erantzuten dietenak.

Bukaeran data eta lekua agertu beharko dira, eta **EKABa sinatuta egon behar du** kasu guztietan. IX Eranskinean EKABa betetzeko informazioa dago eskuragarri.

1.1.- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren** justifikazioa egingo da EKABaren Parte IV, apartado B, punto "Solvencia económica y financiera" (18. orria) betez eta derrigorrez eskuragarri dauden hiru ekitaldietako onenari dagozkion **Merkataritza Erregistroan behar bezala gordailututako urteko kontuak aurkeztu beharko dira, dagokion gordailu-egiaztagiriarekin batera**; beraz, **urteko kontu** horiek gutun-azal honetan sartu behar dira.

1.2.- **Kaudimen teknikoaren** justifikazioa egingo da EKABaren Parte IV, apartado C, punto "Capacidad técnica y profesional" (21. orria eta hurrengoak), dagozkion datuak adieraziko dira. Atal honetan, enpresak egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, azken hiru urteetan, gehienez ere, eta urteko zenbatekoan (BEZa barne), gutxienez 80.000 eurokoa.

1.3.- Baldin eta proposamena Aldi baterako enpresa-elkarte (**ABEE**) batek egingo bada, EKABaren Parte II, apartado A, punto "Forma de participación" (4. orria) bete beharko dira enpresa-elkarteko kide adina EKAB eta, gainera, erantzukizunpeko adierazpen batean azaldu beharko da enpresa bakoitzak elkartean zein portzentajerekin jarduten duen. Elkartearen ordezkaria zein den ere esan behar dute.

1.4.- Lizitatzailerik EKABaren Parte II, apartado D, punto "Subcontratación" (7. orrian) adierazi behar dute eskaintzan **azpikontratatzailerik** izena (inoiz ere ez da balio ekonomikoen gaineko erreferentziarik). Halaber, EKABaren Parte IV, apartado C, punto 10) atalean kontratuaren zein portzentajea azpikontratatuak den adieraziko da.

1.5.- Baldin eta proposamena egiten duen enpresa **enpresa-talde** batekoa bada, EKABaren Parte II, apartado A, punto "Forma de participación" (4. orria) adierazi beharko du hala dela, bertan emanik, taldearen izena ez ezik, taldeari lotutako enpresen zerrenda ere, Merkataritza Kodaren 42. artikularen arabera.

1.6.- Baldin eta **kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatu** behar bada, hori adierazi behar da EKABaren Parte II, apartado C, punto "Recurso" (7. orria) zatian, eta **VII. Eranskina** bete beharko da eta gutun-azal honetan sartu.

1.7.- EKABaren Parte IV, apartado C, punto 9) (25. orria) zatian, eranskin honetako 12. puntuaren arabera, kontratuaren helburu den zerbitzua exekutatzekeo ardura izango duten langileen **izenak eta titulazioa** aipatu beharko da.

2.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, VI. ERANSKINA

Nahitaezkoa izango da VI. Eranskina betetzea, hau da, "Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, langileen % 2k desgaitasunen bat izateko edo ordezkio neurriak hartzeko betebeharra eta indarreko araudian lanaren, gizartearen eta emakume eta gizonen berdintasun eraginkorraren arloetan ezarritako betebeharrak betetzen direla adierazteko".

3.- IZENAK ETA LANBIDE-KUALIFIKAZIOA

Gutun-azal honetan sartu beharko dira, halaber, eranskin honetako 12. puntuan xedatutakoaren arabera, kontratuaren xede den prestazioa gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa (ez curriculum vitae). Arduradun/solaskidearen kasuan, lizentziaturako edo zuzenbideko graduak unibertsitate-prestakuntza egiaztatzekeo, ezinbestekoa izango da dagokion titulu ofiziala eranstea; eta diru-bilketako prozeduran hiru urteko gutxienezko esperientzia egiaztatzekeo, ezinbestekoa izango da diru-bilketako



prozeduran esperientzia egiaztatzen dituzten titulu ofizialak edo lan-ziurtagiriak eranstea. Halaber, ezinbestekoa izango da EGA edo baliokidea den euskara-titulua hemen sartzea.

B GUTUN-AZALA

1.- MEMORIA TEKNIKOA

Gutun-azal honetan memoria tekniko bat sartu beharko da, I. eranskin honetako 19.1 puntuaren arabera baloratu beharreko alderdi guztiak jasoko dituen. Horrek gehienez 60 orriko luzera izango du.

Memoria tekniko hau sartzan ez bada, enpresa lizitazioetik kanpo geratuko da.

Memoria teknikoan ezin izango dira inola ere sartu baloreak, erreferentzia ekonomikoak edo C gutun-azalean sartu beharreko dokumentazioan baloratu beharreko gainerako alderdiak. Horiek C gutun-azalean baino ez dira jaso beharko, eta erreferentzia horiek sartzea baztertzeko arrazoia izango da, lizitatzailerari entzun ondoren.

C GUTUN-AZALA

1.- II. ERANSKINEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

"Zifretan edo ehunekoetan balora daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa" jasoko du, eta, horretarako, **II. eranskineko erantzukizunpeko adierazpenaren eredua erabili beharko da.**

Enpresa lizitatzaileraren proposamenak **soilik bitarteko elektronikoen bidez** aurkeztuko dira **HOGETA HAMASEI (36) EGUN NATURALEKO** epean, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Epearen bukaerako eguna larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da, eta **betiere 15:00etan**. Nolanahi ere, lizitatzailerak beren dokumentazioa aurkeztu beharko dute halako moduz, non proposamenen isilekotasuna bermatuta geratzen den.

19.- Adjudikazio-irizpideak (20., 30. eta 32. klausulak)

Hainbat esleipen irizpide.

19.1.- Zifren edo ehunekoen bidez balora ezin daitezkeen irizpideak: 40 puntu.

Atal honetan gutxienez 20 puntu lortzen ez dituen enpresa lizitatzailerak lizitazioetik kanpo geratuko da, betiere bere eskubide guztiak bermatuta. **Memoria teknikoan ezin izango dira, inola ere, balio edo erreferentzia ekonomikoak sartu, eta c gutun-azalean bakarrik jaso beharko dira.**

Irizpidea	Balorazioaren deskribapena	Hazt.
Memoria teknikoa	Eman beharreko zerbitzuak deskribatzea, antolatzea eta programatzea. Zerbitzua eskaintzeari atxikitako pertsona kopurua, egin beharreko lanen ordutegiak eta antolaketa eta abar baloratuko dira, eta bereziki kontuan hartuko da erakusketaren argitasuna eta zehaztasuna, baita Tolosaren tamainako udal baten antolaketa errealitatera egokitzea ere.	10 puntu
	Ogasun eta Finantza Administrazioako arloarekiko harremanak gauzatzeko funtzionamendu-eredu bat proposatzea. Bereziki kontuan hartuko dira azalpenaren argitasuna eta zehaztasuna, bai eta komunikazioaren eraginkortasuna eta udal-gidalerroak betetzeko bermerik onena bermatzeko alderdi guztiak ere.	10 puntu
	Langileen organigrama, zerbitzuak emateko, lan-jardueretarako eta antolaketa-irizpideetarako, eginkizunak eta haien arteko koordinazioa zehaztuta. Era berean, lanpostu hutsak edo ezohiko egoerak betetzeko aurreikuspenak, prestakuntza- eta gaikuntza-jarduerak eta abar baloratuko dira, eta bereziki kontuan hartuko da erakusketaren argitasuna eta zehaztasuna, bai eta Tolosaren tamainako udal baten antolamendu-errealitatera egokitzea ere.	10 puntu
	Kontratua gauzatzeko erabiliko den programa informatikoa baloratuko da, eta,	10



bereziki, datuak migratzeko IZFE, S.A. sozietatearen programa eta aplikazioekin duen bateragarritasuna eta integragarritasuna. Horregatik, lizitatzailerak erabili beharreko programa informatikoaren ezaugarri teknikoak sartu beharko dituzte memorian.	puntu
---	-------

19.2.- Zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak: 60 puntu.

Irizpidea	Formularen justifikazioa	Hazt.
Prezioa	Zergen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen nahitazko diru-bilketaren ehunekoa, trafiko-zehapenak izan ezik. Ezarritako% 18ko gehieneko ehunekoarekiko portzentajeazko puntu bateko beherapen bakoitzeko 5 puntu emango dira.	15 puntu
	Trafikoko zehapenen kudeaketa integralaren ondoriozko borondatezko bilketaren eta bilketa exekutiboaren ehunekoa. Ezarritako% 42ko gehieneko ehunekoarekiko portzentajeazko puntu bateko beherapen bakoitzeko 5 puntu emango dira.	35 puntu
Esperientzia	Zerbitzuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan hartuta, arduradun/solaskide horren esperientzia baloratuko da. I. eranskin honetako 12. atalean eskatu denez unibertsitateko lizentziatura edo zuzenbideko gradua izatea eta gutxienez hiru urteko esperientzia izatea diru-bilketako prozeduretan, puntuazioa emango da izaera bereko edo antzeko lanetan edo zerbitzuetan esperientzia izateagatik, gutxienez eskatzen diren hiru urteak alde batera utzita, hau da, <u>puntu 1 emango da esperientziako urte bakoitzeko, hiru urteko gutxienezko esperientziatik harago</u> (zenbaketa egunekoa bada, urte bat 365aren baliokidea dela ulertuko da) SPKLren 90.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, lan edo zerbitzu bat kontratuaren xedearen izaera bera edo antzekoa dela zehazteko, CPV kodeak hartuko dira kontuan. Esperientzia hori zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatuko da (lan-kontratua, lan-bizitza, etab.), esperientzia hori zalantzarik gabe frogatzen badu, eta C gutun-azalean sartu beharko da.	10 puntu

20.- Arrazoizkoa baino eskaintza txikiagoak. (20. eta 24. klausulak)

Ba al dagokio: Bai.

Adjudikazio-irizpideak eta eskaintza bat anormaltzat jotzen dela identifikatzea ahalbidetzen duten parametro objektiboen aukeraketa:

Irizpidea	Eskaintza bat anormaltzat jotzen dela identifikatzea ahalbidetzen duten parametroak
Kontratuaren prezioa	Desproporzionatutzat edo anormaltzat joko dira hurrengo egoeraren batean aurkitzen diren eskaintzak: a) Lizitatzailerak bakarrik izanda, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren azpitik badago 20 unitate portzentualetik gora; b) Bi lizitatzailerak badira, eskaintza bat bestearena baino txikiagoa bada 20 unitate portzentualetik gora. c) Hiru lizitatzailerak edo gehiago badira, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoa dena 10 unitate portzentualetik gora. Halere, batezbesteko hori konputatzeko, kendu egingo da aipamenerako batezbestekoa baino 10 unitate portzentual gorago dagoen eskaintza. Edozein kasutan, desproporzionatutzat joko da 25 unitate portzentualetik gorako beherakada. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat edo anormaltzat joko dira azpikontratazioari buruzko araudia urratzen duten eskaintzak edo ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatu beharreko betebeharrak betetzen ez dituztenak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen



	kolektiboak ez betetzea barne, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Eskaintzak anormaltzat edo desproporzionatutzat jotzeko, kontratazio mahaiak kontuan hartuko du enpresak aurkeztutako eskaintzaren Memoria Justifikatzailea, eta aztertu ahal izango du enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren artean dagoen erlazioa.
--	---

Eskaintza anormala dela justifikatzeko epea: 5 lanegun jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

21.- Aldaeren onargarritasuna. (24. klausula)

Ez dagokio.

22.- Adjudikazio-irizpideekin lotuta aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa. (28. klausula)

Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan eta I. Eranskin honen 18 eta 19. puntuetan zehaztutakoa da.

23.- Irizpide subjektiboen balorazio organoa (30. klausula)

Ez dagokio.

24.- Egikaritzearen baldintza bereziak. (12. klausula)

Datuen babesa: Kontratatik datuen babesari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasuneko bete behar ditu.

Ingurugiro motakoak: ez dagokio.

Gizarte motakoak:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo horiek ordeztzen dituzten arauen babesean, honako hau hartuko da kontuan: dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu beharko dute eta sustatu. Irudi horrek honako balio hauek ditu: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta identitate aniztasuna Datu estatistikoak sexuaren arabera bereizita egon beharko dira, baldin eta lor badaitezke.

Lan motakoak:

- Plantillaren lan-egonkortasuna, kontratua gauzatzen duten langile guztien plantilla mugagabearen gutxieneko ehunekoa 30ekoa izango dela ezarrita.
- Enpresa esleipendunaren betebeharra da kontratua gauzatuko duen plantillari aplikatzea kontratuaren prestazioa kokatzen eta garatzen duen sektoreko eta lurraldeko azken hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak, hargatik eragotzi gabe kontratuan xedatutakoa hobetzea.

Berrikuntzarekin erlazionatutakoak: ez dagokio.

Besteak: Esan bezala, enpresa esleipendunak bere softwarea izan beharko du diru-bilketaren zerbitzua epe exekutiboan emateko. Esleipendunak betearazpen-aldian diru-bilketaren zerbitzua emateko erabiltzen duen programa informatikoak aukera eman beharko du bertan jasotako datuak udalaren diru-bilketaren datu-basera eramateko. Borondatezko epean trafikoko zigorren kudeaketa Udalaren softwarearen (IZFE) bidez egin beharko da.

Aipatutako baldintza guztiak, funtsezko hitzarmen-betebeharraren izaera dute.

25.- Kontratua egikaritzea. (16. klausula)

Zati edo lanketa jakin batzuk, beren izaera berezia kontuan hartuz, lizitatzailerak berak zuzenean, edo Enpresen aldi baterako elkarteko partaide batek exekutatzeak aukera: Bai; arduradun/solaskideari, nahitaezko diru-bilketaren kudeatzaileari, trafiko-zehapenen kudeatzaileari eta administrari laguntzaileari dagozkion funtzioak eta zereginak.

26.- Azpikontratazioa. (45. klausula)

Azpikontratazioa baimenduko da soil-soilik, arduradun/solaskidearentzat, nahitaezko diru-bilketaren



kudeatzailearentzat, trafiko-zehapenen kudeatzailearentzat eta administrari laguntzailearentzat diren funtzio eta zereginetarako izan ezik.

Azpikontaristek zuzenean ordaintzea: Ez.

Lizitatzailak honako hauek adierazi beharko dituzte eskaintzan: azpikontaratu beharreko kontratuaren zatia, kontratu osoaren aldean duen ehunekoa eta azpikontaristen izena edo enpresa-profila. Horretarako, Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB) dauden atalak erabili beharko dituzte, eta hor adierazi beharko dituzte azpikontaratu beharreko enpresaren datuak, A gutun-azalean sartu beharko direnak.

SPKLren 122.2 artikuluko e) letran xedatutakoaren arabera, lizitatzailak beren eskaintzan adierazi beharko dute zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontaratu nahi dituzten ala ez, enpresa izena edo profila (kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzen arabera definituta), kontratua egiteko arduraren izango duten azpikontaristen kasuan. Betebehar hori funtsezkotzat jotzen da SPKLren 211. artikuluko 1. zenbakiaren f) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako.

27.- Kontratuaren lagatzea. (44. klausula)

Kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak kontratistak hirugarren bati ezin izango dizkio lagatu, izan ere, lagatzea ezinezkoa baita SPKLren 214.1. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera: lagatzailearen ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarriak izan dira kontratua adjudikatzerakoan.

28.- Administrazio-baldintza berezien agirian aurreikusitako aldaketak (51. klausula)

Ez dagokio.

29.- Amaitzea (52. klausula)

Kontratistari kontratua amaitzearen ondoriozko kalte eta galerak ordaintzea: SPKLren 208. artikuluan xedatutakoaren arabera.

30.- Zehapenak. (12., 39., 43., 45., 47. eta 53. klausulak)

a) Atzerapenagatik: SPKLren 193. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistak, berari egoz dakizkiokeen arrazoiak tarteko, atzeratu egingo balitz iraupen osoaren betetzearekin, kontratuaren prezioaren —BEZik gabe— 1.000 euroko 0,60 euroko eguneroko zehapena jarriko litzaioke.

b) Partzialki ez betetzeagatik edo akatsekin betetzeagatik:

